

PIRINIOETAKO HERRIETAN IZANDAKO ERAGINA ETA ELKARTASUNA

Batailoiak ibiltariak zirela eta, mugatik gertu zeuden herri batzuetara heldu ziren, eta bertako biztanleriak prisioneroekin zein ofizialekin harremanetan jartzeko aukera izan zuen.

Lanerako bideak, plazan formatu behar izateak, mezatara derrigorrez joateak edota zenbait ihesaldiek, besteak beste, bertakoek prisioneroen zigorra ikusi ahal izatea erraztu zuten. Gainera, janari lapurretak eta zorriak zein hazteria herrietan zabaltzea, miseriaren erakusleak baino ez ziren.

Egoera honen aurrean, jarrera desberdinak agertu ziren herritarren artean, eta familia batzuek prisioneroekin harremanetan sartu eta elkartasuna eskaini zieten.

Gainera, batailoiekin batera autoritate berriak heldu ziren, udalei zegozkien afe-
retan, egurraren ustiaketan kasu, edo bertakoen etxeetan sartzeko prest, herri-
koen aurrean beren boterea erakutsi nahian.

Testigantzak

Adenso Dapena

(BB.TT. 127, Portavedra)

Herriraino oinez joan ginen. Gehien harritu nauen esaldia orduan aditu nuen, haur batek bere amari ea gu gorriak ginen galdetu zionean, amak baietz erantzun eta haurrak hala esan zion: "adarrik eta buztanik ez dute eta!"

Jesús Moreno

(BDS.T. 38, Gernika, Bizkaia)

Han, Aiako Harriari, Errenteriko eta Oiarzungo neskak igotzen ziren, gu bisitatzera eta janaria ekartzera.

Milagros Jáuregui

(Igan)

Lanera joaten zirenean gure ate aurrean pasatzen ziren, kapa apurturik, ortozik, penagarria zen ikustea!

Atanasia

(Bidankoze)

Lapurtzen zuten, bai, baino beharra zutelako, gosea zutelako! Eta kriston jipoiak ematen zizkieten!

Andresa Asín

(Bidankoze)

Nire etxea goialde batean zegoen, eta egunero lanera jaisten ziren, eta zigor pelotoia lehenengoa jaisten zen, hareaz betetako zaku bat sorbaldatik zintzilikaturik zutela, eta horrela egun osoa lanean.

Angel Galán

(Garde)

Denda zuen emakume honek, Julia Beginok, kontserba lataren bat ateratzen zion koste-prezioan, eta nire aitak okinarekin hitz egiten zuen eta honek ezkutupean ogia egiten zion. Horrela, lana bukatu ondoren, gauean, janaria hartu eta Gardeko bidegurutzera jaisten zen, eta hantxe, estolda batean, uzten zien janaria. Eta gauean zehar ere prisioneroek hartzen zuten (...) Urte batzuk geroago, emakume horrek maki-kientzako janaria prestatzen zuen, bion artean egiten zuten.

Inés Zazu

(Erronkari)

Eskolatik atera gintuzten han prisioneroak sartu zituztelako.



Almadiak Bidankoze, 40ko hamarkadatik
Barru, Txuri Beltzaren, Errepublikar gudarostearen, Txuri Beltzaren, 2003



Herri-basotetan eraingidako kateak
Barru, Bidankoze, Iñaki Korta, 2003



Bidankoze, 1950. urte inguruan
Barru, Txuri Beltzaren, Errepublikar gudarostearen, Txuri Beltzaren, 2003



Bidankozeko familia Xabier Santsa Maria-Amurrio prisioneroarekin
Lagunak, Zuzen Gaitza, Maria-Amurrioarekin, Txuri Beltzaren, 2003



Prisioneroak Bidankozeko zenbait emakume gazteekin
Lagunak, Zuzen Gaitza, Txuri Beltzaren, 2003



Basi Sants, zenbait prisionerori laguntza eman zion Erronkariako emakumea
Lagunak, Zuzen Gaitza, Txuri Beltzaren, 2003

ESKLABOTZA FRANKISMOAN: ERREPIDEAK ETA FORTIFIKAZIOAK MENDEBALDEKO PIRINIOAN

3. Alanbradaz haratago

